

# Getxo >MEETING<



MARTXOAREN 1EKO GETXOMEETINGA. KONTATUKO DIZUGU ;)  
**Nola muntatu azkar batean marketineko mikroekintza bat**

Getxo MEETING Getxoko ekintzaileen eta enpresen arteko topagunea da, eta azken saioan marketingaren inguruko ideiak sortu ditugu. Topaketa horien helburua ikastea da, beste pertsona batzuek beren enpresetan edo ekintzaitza prozesuetan izandako esperientzian oinarrituta. Talde handia izan da azken saioan, eta proiektu aniztasun handia egon da; horrek aberastu egiten du giroa, eta sinergia asko sortzen dira.

Saioaren hasieran alboko pertsona eta haren proiektua aurkezteko txanda bat egin dugu. Horrela, aukera izan dugu ikusteko nola saltzen dugun geure burua eta nola ikusten gaituzten gainerakoek. Hortik ere atera daitezke zenbait hausnarketa.

Azken saioan hizpide izan dugu marketinga, hain zuzen, nola egin marketing miniekintza bat azkar. Horregatik mahaigaineratu ditugu kontsumitzaile gisa atentzioa eman diguten ideiak.

Honako hauek aipatu dira: marketing emozionalarekin lotutako kanpainak, bezeroak zaintzeko detaile txikiak, balioetan sakon oinarritutako kanpainaren bat eta beste hainbat adibide, inspirazio iturri izan zaizkigunak.

Idea horiek guztiak partekatu ondoren, jardunera igaro gara. Ibilbide txiki bat sortu dugu, eta bertan jarri ditugu ekintza txiki baterako estrategiaren gakoak.  
Alegia:

- Definitzea **xede taldea**, nortzuei zuzendu nahi diezun ekintza.
- Jakitea **zer den ezagutzera eman nahi duzuna**: zerbitzu linea berri bat, produktu bat, zura enpresa, eta abar.
- Definitzea kanpaina edo ekintza horrekin lortu nahi duzun **helburu bat**.

- Kontuan izatea zure enpresaren **balioak**.

Hausnarketa pertsonalago baten ondoren, eta estrategiari lotuago zegoen lehen zatia amaituta, taldean ideia konkretuak sortzen hasi gara. Horrela, kontuan izanda aurretik aipatu ditugun alderdiak, bihartik aurrera egiteko ekintzen ideiak sortu dira. Piztu dira hainbat bonbila, gero!

Dinamika mota horrek asko laguntzen dio jendeari haren ideiak fokuratzeko, gogoazabaltzen eta motibazioz betetzen, saioaren amaieran parte hartzaile batzuek adierazi duten bezala.

Helburua da gure lan gunetik irtetea, egunerokotasunetik irtetea, geure berdinekin topatzeko eta aurrera eramateko buruan bueltaka ditugun erronka txiki horiek.

Topaketa horietan hainbat tresna eta abilezia geureganatzen ditugu, **EKINTZAILTZETA** deritzon iraupen lasterketa horretako oztopoak gainditzen jarraitu ahal izateko. Garrantzitsua da pentsatzeko eta hausnartzeko denbora hartzea, espazio horiek horretara gonbidatzen gaituzte, hain zuzen.

Ez ezazu huts egin hurrengo saioan. **Martxoaren 15ean** izango da. Egun horretan ideiak bilatuko ditugu **zure blogean edo LinkedIn profilean edukia sortzeko**. Zein eduki nahi dute zure edukia irakurtzen dutenek? Zuk post formatuan eman diezazkiekezun zein irtenbide behar dituzte? Horren inguruan arituko gara.

Ez ahaztu saio bakoitzerako izena eman behar duzula, ohiko bideetatik (posta elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurre).

Hilaren 15era arte!